



**SORALUZeko UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

**OINARRIAK, EUSKARAZKO IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO HELBURUA DUEN "IRAKURRI ETA GOZATU" KANPAINAREN BARRUAN ERROLDATUEK DESKONTU BONUAK ESKURATZEKO OINARRIAK**

**LEHENA: Kanpainaren helburua eta prozedura.**

**Helburua:** Euskarazko irakurzaletasuna sustatzen laguntzea eta euskarazko liburu edizioari bultzada ematea, "Irakurri eta Gozatu" izeneko kanpainaren bitartez, herritarrek euskarazko liburuak merkeago erosi ahal izan ditzaten.

**Prozedura:** Bono deskontu kanpaina honek liburuaren prezioaren gaineko %50eko balioko hainbat bono jarri nahi ditu zirkulazioan, herriko liburu-establezimenduetan trukatzeko.

Bonoak aipatutako establezimenduetan egongo dira eskuragarri, interesdunak bete eta erosketara egiterakoan bertan entrega ditzan.

Gehinez ere bi deskontu bono erabili ahal izango ditu herritar bakoitzak.

**BIGARRENA: Onuradunak.**

Onuradunak kanpaina honetan parte hartzen duten erroldatutako herritarrak eta herrian helbide fiskala duten liburu-establezimenduak izango dira.

Soraluzeko Udalak eskuragarri jarritako %50eko deskontu bonoak herritarrak establezimenduan entregatu ditzake eta liburu beharpen horrekin erosi. Udalak ordainduko dio gainontzeko %50 establezimenduari. Horretarako establezimendu bakoitzak behin kanpaina amaituta deskontu bono guztiak salmenta tiketekin batera udalean aurkeztuko ditu eta dagokion diru kopurua jasoko du.

**HIRUGARRENA: Aurrekontu partida eta finantziarioa.**

Gastua Soraluzeko Udalaren 2023ko aurrekontuko 1 1200.481.01.335.00 2023 (226) -partida bidez bideratuko da.

Deskontu bonoak eskatu ahala banatuko ditu establezimenduak, partidan jasotako kopurua agortu arte.

Udalak 2.000 euroko diru-kopurua bideratuko du bonoen erosketara.

**LAUGARRENA: Deskontu bonoen ezaugarriak eta erabilera baldintzak herritarrentzako**



**SORALUZeko UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

— **Deskontu bonoak eta balioa:**

Soraluzeko udalak liburuaren prezioaren gaineko %50eko balioko bonoak jarriko ditu eskuragarri. Bono bakoitzak liburu bat erosteko aukera emango du.

Udalak establezimenduari ordainduko dizkio deskontu bonoei dagokien kopuruak, Udaletxean deskontu bonoak eta bakoitzari dagokion tiketa aurkeztu ondoren.

— **Nork eskuratu ditzake deskontu bonoak:**

Herrian erroldatutako herritarrek.

Herritar bakoitzak 2 bono eskuratu ahal izango ditu gehienez

— **Non eta nola eskuratu daitezke deskontu bonoak:**

Deskontu bonoak herriko edozein liburu-establezimendutan eskatu daitezke.

Herritarrek erabili dituen bonoen zenbakiak eta onuradunaren izen-abizenak erregistratuta geldituko dira, herritar bakoitzak gehienez ere 2 deskontu bono jaso dituela bermatzeko.

— **Noiztik aurrera eskuratu daitezke deskontu bonoak:**

Deskontu bonoak 2023ko apirilaren 17tik maiatzaren 19ra arte eskuratu daitezke herriko edozein liburu-establezimendutan.

— **Deskontu bonoak trukatzeko epea:**

Deskontu bonoak 2023ko apirilaren 17tik maiatzaren 19ra arte trukatu daitezke herriko edozein liburu-establezimendutan.

— **Non trukatu daitezke deskontu bonoak:**

Deskontu bonoak Soraluzeko liburu establezimenduetan trukatu ahalko dira.

Bezeroak bonu originalak entregatu beharko ditu erosketaren egiten duen establezimenduan.

— **Nola erabili deskontu bonoak:**

Deskontu bonoak liburuaren balioaren %50eko baliokoak izango dira. Erosketan bakoitzean gutxienez bono oso bat erabili beharko da, eta gehienez bi deskontu bono oso.

**BOSGARRENA: Deskontu bonoen kudeaketa establezimenduentzako**

— **Deskontu bonoekin ordaindutako salmentak nola kudeatu:**

Establezimenduak deskontu bonoa onartuko du erosketaren ordainketa modura. Establezimenduak deskontu bono originala hartuko du eta salmenta tiketa atxikiko dio.



**SORALUZeko UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

kanpainan zehar jasotako deskontu bonoekin eta atxikitako tikeekin, establezimenduak likidazioa egiteko inprimakia (Eredua oinarri hauetako 1. eranskinean) beteko du eta Soralezeko udalean aurkeztuko du.

Soraluzeko Udalak, likidazioak aztertu eta onartu ondoren, ordainduko dizkio establezimendu bakoitzari dagozkion kopuruak banku transferentzia bidez .

**SEIGARRENA: Ikuskatzea eta ez betetzeak.**

Soraluzeko Udalak egokitzen jotzen dituen egiaztapen, ikuskapen eta gainerako kontrol guztiak egin ahal izango ditu ziurtatzeko baliabide publikoak ondo erabiliko direla eta laguntza programa hau modu egokian garatu eta aplikatuko dela.



